



Boliñate

etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa: Bolintxu / Bólinena

“... la casería denominada Boliñate... sita en la barriada de Murgoitio, jurisdicción de la anteiglesia de Berriz, consta de una vivienda y ocupa treinta y medio estados de planta solar, o sean ciento diez y seis metros cuadrados con inclusión del horno y tejavana y antusano o franquicias contiguas; se compone en su piso llano de portalada, cocina, aposento y cuadra; en el piso principal de dos dormitorios y pajar, y encima de los dormitorios pajar...”

DJE 5/31 or. (1881)



43° 9' 52"

2° 34' 31"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri hau XVIII. mendeko su-errodetan agertzen da: *Boliñate* (1704), *Volināte* (1745) eta *Bolinarte* (1796). XIX. mendean *Boliñate* moduan dokumentatzen da, eta XX. mendean *Bolinete* izatera pasatu zen, horrela agertzen baita Udalaren erroldetan (1910 eta 1967). Azken berriztapenekin, 1980eko hamarkadan, *Bolintxu* izena agertzen da, ate nagusiaren goialdean jarrita duelarik. Auzotarren artean, baserri-taberna izandako eraikin hau *Bolintxu* edo *Bólinena* moduan ezaguna da. Murgoitio eta Eitua kofradiak bereizten dituen *Žalduerrekaren* ondoan kokatuta dago, *Žubierremetari* (**Ikus Zubierre-**

mentaria) baserrira heldu baino lehen.

Etxe xumea eta soila da, XIX. mendeko amaieran eta XX. mende hasieran nagusitu zen estiloaren baitakoa, eta bi isurkitako teilatua dauka. Nahiz eta lehen begiratuan simetrikoa dirudien, fatxada nagusiko baoak alde batera daude, ganbarako leihotxoek frogatzen duten moduan. Antolamendua simplea da: atea erdi antzean, eta pisu bakoitzeko leiho bana, alboetan. Tradizioak agintzen zuen moduan, harlandua nabarmentzen da lau kantoietan, nahiz eta ate inguruan ere izan, erdi ingururaino.

toponimia

Mendebaldeko Euskal Herrian errota deitzen dugun eraikuntza lehenago bolu edo boli, deitzen zen, eta nonahi ikus dezakegu hitz horrekin osatutako toponimoak: Bolibar, Bolueta Bolunburu... Hitz biek, 'errota' eta 'bolu', latina dute jatorria. Latinezko rota hitzetik errota sortu zen euskaraz eta rueda gaztelaniaz. Modu berean, latineko molinum hitzetik gaztelaniazko molino eta euskarazko bolu sortu ziren.

Antzina, hitz horrek -n- zuen tartean, hau da, bolinu; baina, euskarazko zenbait hitzetan, bokalen artean ageri zen -n- soinu hori galdu egin da. Horrela gertatzen zen bai leku-izenetan (Otxandio, Zestoa...), bai euskarazko hitzetan (adib. ardoa eta gazta), eta baita latinetik hartutakoetan ere (katea eta kanpai latinezko catena eta campana hitzetatik datoz, hurrenez hurren). Aitzitik, hitz konposatueta berrir ageri da -n- hori, eta horregatik esaten dugu katenbegi, kanpandorre, ardanegi eta gaztanbera, besteak beste. Bolu hitzaren kasuan ere, horregatik ageri da hemen eta Bolunburu izenean -n- hori. Horrenbestez, 'Errotako atea' esango genuke gaur Bolunate-ren ordez. Baserriaren beste izenak, hots, Bolintxu eta Bolunena, berriagoak dira, eta jatorrizko Boliñate izenetik sortu ziren. Gogoratu behar da Boliñate esaten zitzaioela.